

PAULA KASARES

## “Hizkuntza-kultura-gizartea hirukotea banaezina da”

*Paula Kasares (Iruñea, 1969). Euskal Filologian (Deustuko Unibertsitatea) eta Gizarte eta Kultura Antropologian (EHU) lizentziatua. Soziolinguistika alorrean doktoregaia (NUP). 1998tik 2000 bitartean Udako Euskal Unibertsitateko Soziolinguistika sailaren arduraduna. 2001etik 2003 bitartean Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria. 2003-2004 ikasturteetik orain bitartean NUPeko Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko irakasle elkartua eta HIZNET Hizkuntza Plangintzako graduondoko irakaslea. 2007tik Nafarroako foru parlamentaria Nafarroa Bai koalizioaren barruan.*

### Hots, zer da euskaldun izatea Iruñean?

Neurri batean, bertze Iruñea batean bizitzea. Anitzetan erran izan den bezala, erdaldun batzuk –inguruan euskaldunak ez dutenak– Pamplonan bizi dira, hiri arrunt erdaldunean, Salamancan biziko balira bezala. Hiriak horretarako bide ematen du erdalduntasuna baita nagusi. Euskaldunok gara Pamplonan ez ezik Iruñean ere bizi garenok, hirian dagoen euskal munduko, kulturako, harreman sareetako partaide garenok eta hori, neurri batean, bertze hiri batean bizitzea da.

### Non jaso duzu hizkuntzarekiko duzun atxikimendua?

Neskatikoa nintzelarik euskaltzaletu nintzen — zehazki ez dakit nola — eta euskarari atxiki nintzaion gogoz, ikasketaz eta lanbidez. Nork bere bideak hautatu eta bere bizitza eratu egiten du hautuen bidez. Alde horretatik, norbanakoak ahalmen handia du balizko determinismoa irauli eta ustez egin beharreko bidetik ateratzeko, zorionez.

### Hizkuntzaz gainera, antropologia zientzia ikasi duzu. Badago arrazoiren bat?

Antropologia ikasi izanaren arrazoia hizkuntzaren alde soziokulturala sakonago ulertzea izan zen. Hau da, nire hizkuntza zaletasunetik iritsi nintzen Antropologiara. Hasieran Euskal Filologia ikasi nuen, hau da, euskal hizkuntzalaritza eta literatura. Mitxelenak aspaldian ohartarazi zuen bezala, hizkuntzalaritza ez da hizkuntzen bizitzaz eta geroaz kezkatzen. Eta nik aldiz, horretantxe nuen neure kezka nagusia. Horregatik, Hizkuntzalaritza Soziolinguistikara pasatu nintzen. Baina gure soziolinguistikak gizartea eta hizkuntza baizik ez ohi ditu uztartu, kultura arloa bazter samar utzirik. Eta niretako hizkuntza-kultura-gizartea hirukotea banaezina da. Ohiko soziolinguistikan alderdi kulturalaren egon den gabeziak bulkatu ninduen Gizarte eta Kultura Antropologiara. Hizkuntzaren gizarte erabileraren gertakaria ulertzeko sakontasun bila hurbildu nintzen Antropologiara.

### Zer da antropologia? Zer ekarri dizu berau ikasi izanak?

Antropologiak egiten duena da, nolabait errateko, testuinguruak azaldu bizitzak ulertzeko. Antropologia bereizten duena errealitatea ezagutzeko modua da: *emic* edo barnetikako ikuspegia, ikusmolde holistikoa... eta alde horretatik bertze hurbilketa batzuek baino sakontasun handiagoa ahalbidetzen du.

### Zer balore ematen diozu hizkuntzari pertsonaren izaeran eta bere garapenean?

Hizkuntzari baino hizkuntzei erranen nuke, eleaniztasunaren onuren sinesle amorratua



Diario de Noticias (M. Saiz)

bainaiz. Hizkuntza mundua izendatu eta esperientzia adierazteko modu berezia den aldetik, eleaniztasuna egungo mundu konplexu ulertzeko eta horretan geure burua kokatzeko ezinbertzekoa iruditzen zait. Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen ohi dituztenek erlatibismo kulturalaren ariketa ohikoa egiten dute, beren hautemate edo pertzepzioetan malguagoak izaten dira eta horrek, nire irudikotz, ‘bertzeekiko’ enpatia eta elkartasunerako erraztasun handiagoa ematen die. Egun, bere hizkuntza baino ez dakiena, nekez izan daiteke mundu anitz honetan eraginkor jokatzeko gai. Elebakarkeria gaixotasuna da, estatu handi anitzetan kezkatzeko modukoa gainera.

### Zein da erdal eta euskal hizkuntzen arteko diferentzia komunikatzeko orduan? Zein alde dago euskaldun osoa denaren eta erdal hiztunaren artean komunikatzeko orduan?

Nire irudikotz, erdal elebakarraren eta euskaldunaren arteko alderik nabarmenena euskaldunak erdal mundua –hizkuntza barne– gutxi-asko ezagutzen duen bitartean, alderantziz aldiz, ez, erdaldun hutsak euskaraz ez ezik euskal munduaz ere ez ohi daki ja ere (kasurik onenean deus gutxi daki). Eta gainera, botere publikoetatik eta hedabideetatik horixe da zabaldu eta indartzen dena: euskara eta euskal kulturaren gainera euskaldunen gauza da, haiei baino ez die axola.

Mikel Asurmendi

Elkarrizketa osoa: [www.euskonews.com/55ozbk/](http://www.euskonews.com/55ozbk/)

La entrevista completa está disponible en euskera y castellano en la dirección mencionada.

PIO PEREZ ALDASORO

## Aitona-amonekin blagan\*

**E**usko Ikaskuntzaren laguntzaz, Hondarribiko udalak finantzatu eta bultzatu du “Aitona-amonekin blagan” izeneko proiektua. Laburki esanda, proiektu horren bidez udalerriko hainbat aitona eta amonari elkarrizketa sakonak egingo dizkiegu, gutxi gora behera ordu eta erdikoak, eta horiek guztiak Euskomediak bidez gordeko ditu.

Guztira, hogeita lau elkarrizketatuek euren testigantzak, bizipenak, iritziak eta haurtzaroko oroitzapenak emango dituzte, gehienak XX. mendeko lehenengo erdialdearen gizarteari buruz. Horrela, orain dela 60 edo 50 urte Hondarribian zer nolako gizarte antolaketa zegoen, edo nola bizi ziren, edota gazte eta haur horien jolasak zein ziren garai hartan; azken finean, esperientzia horiek guztiak ezagutaraztea izan da proiektuko arduradunen asmoetariko bat.

Horrelako proiektu batek ertz anitzak ditu, poliedrikoa da; baina helburuen artean bat nabarmendu beharko bagenu, honako hau izango litzateke: Hondarribiko historia kolektiboan jasotzea gizon eta emakumeen oroimena (herritarren testigantzak, gogoan gordetzen dituzten bizipen interesgarrienak, haurtzaroen entzun zituzten ipuinak, desagertzear dauden lanbide tradizionalak buruzko informazioak, eta abar). Eta bide batez, testigantza eta bizipen bilduma horren haritik, herriko historian ikuspegi berriak sartu nahi

izan ditugu; hain zuzen ere, historiako liburutuan inoiz agertu ez diren herritar xumea agerraraztea. Eta hondarribiar horri, emakumeari zein gizonezkoari, herriko historiako orrialdetan behar duen lekua eskaintzea.

Gure usteetan, Hondarribiko udalak ulertu du horrelako proiektuek herriko kultura, ondasuna eta talde identitate izaera aberasten dutela, zeren herriko zenbait pertsona elkarrizketatzen herriko oroimena, kultura eta identitatea transmititzen baitira, eta neurri batean, denak gara transmisio horren emaitza, jendartearen partaideak baikara. Izan ere, jasotako testigantza hauek ez dira anekdoten bilduma edo zaharren kontu hutsak; gordetako elkarrizketa horiek eskaintzen dizkigute mundua ikusteko hainbat ikuspegi edota gure gizartea ulertzeko bestelako ikuspuntuak.

Halaber, aipatu dugun bezala, “aitona-amonekin blagan” proiektua ikus-entzunezko euskarritan oinarrituta dago, eta horrek lagun dezake, belaunaldiz belaunaldi, talde memoriaren transmisioan. Jakina da belaunaldi gazteek ikus-entzunezkoarekin duten atxikimendua, horregatik proiektua osatuko da dokumental batez, Euskomediako teknikariek prestatuta. Guzti horregatik udalerriko biztanleentzat bideo grabaketak horiek balio handiko kultura-ondasuna izan daitezke, eta era berean, herriko bizitzan gertatu diren kultura eta gizarte aldaketak ulertzeko tresna eraginkor bat izan

daiteke. Hala eta guztiz ere, zientzialari eta ikerlarien ikuspegitik interesgarria izan daiteke, zeren elkarrizketa horietan aldaketa dinamikak ulertzeko, kultura-osagaiak aztertze edota hizkuntzaren aldaerak ikertzeko material txit interesgarria dago. Gainera, 50 orduko grabaketak herritarren zein ikerlarien eskura egongo dira herriko liburutegian, eta soziologo, antropologo, filologo eta abarrek kontsulta ditzakete lasai eta sakonki.

Amaitzeko, ekar ditzagun hona Amador Hampaté Afrikako historialarien hitzak: “Afrikan agure bat hiltzen denean liburutegi oso bat erretzen da”. Hitz horiek euren baitan gordetzen den ideia interesgarria da. Beharbada, paralelismo bat eginez, uler dezakegu esaldi horretan gure mendebaldeko eta euskal gizartean ere ahozko testigantzak jasotzeko premia. Izan ere, horrelako testigantzak ondasun altxor aberatsak dira eta ezin ditugu galtzen utzi. Eta lerro honen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu elkarrizketatuak izan diren guztioi. Azken finean, hondarribiar hauen laguntzarik gabe proiektu honek ez luke ez edukirik, ez zentzurik. Hona hemen bada, gure esker zintzoena.

Grabaketa horien guztien laburpena da Hondarribiko *Aitona-amonekin blagan* izeneko DVD dokumentala, berrogeita hamar minututan bildu dira elkarrizketen interesguneak, pasarte esanguratsuenak eta harri bitxiak. DVDaren 300 ale argitaratu dira eta salgai dago Hondarribiko Arma Plazako Interpretazio Gunean eta Eusko Ikaskuntzaren web orriaren bitartez.

\*Hondarribian blagan hitza erabiltzen da hizketaldia adierazteko.

Paperetik sarera

www.euskomedia.org



### ¿Quién construyó Ajuria Enea?

**U**na de las noticias más agradables del mes pasado ha sido la elección de Vitoria-Gasteiz como Capital Verde Europea para el año 2012. La Comisión Europea viene así a reconocer la labor desarrollada en la mejora de la calidad de vida urbana y en la “ecologización” del entorno urbano tradicional.

Edificio representativo de la capital alavesa es el Palacio de Ajuria Enea, construido en 1920 por encargo del industrial Serafín Ajuria. Pero ¿quién fue el arquitecto que lo levantó? Tanto en la página web del Gobierno Vasco como en la Enciclopedia Auñamendi, así como

en las enciclopedias libres que existen en la red, se atribuye su autoría, de modo firme o hipotético, a Alfredo Baeschlin. Arquitecto, pintor, escultor, poeta y escritor suizo, Baeschlin escribió en 1930 una obra de referencia: *La arquitectura del caserío vasco*, reeditada como facsímil por Eusko Ikaskuntza en 1992. Dicha edición está completamente agotada, pero se halla en soporte digital: se puede acceder a ella a través de [www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org).

Sin embargo, Alfredo Baeschlin nada tuvo que ver en la construcción de Ajuria Enea. Gracias a la investigación realizada por Federico

Verástegui hemos sabido que el propio Serafín Ajuria hizo el diseño del edificio, inspirado en las casas torre vascas, y que el arquitecto que firmó los planos fue Carlos Maura Nadal, conocido sobre todo por el monumento del Sagrado Corazón en el madrileño Cerro de los Ángeles. La puntualización histórica vale la pena. En la ventana Atejoka de este mes seleccionamos el retrato de Serafín Ajuria y su mujer ante el [Palacio de Ajuria Enea](#), pintado por Elías Salaverría.

Otra magnífica noticia que nos dejó octubre fue la concesión del Premio Nacional de Ensayo a Anjel Lertxundi por su libro *Eskarmentuaren paperak*.

Este ensayo, parcialmente autobiográfico, tiene su fundamento en la memoria. El mismo tema que abordó en el XVII Congreso de Estudios Vascos celebrado hace un año. A la espera de la publicación de las ponencias del Congreso, podemos ver el vídeo de la intervención de [Anjel Lertxundi](#) sobre “Memoria Social” en nuestra selección del mes de la web de Euskomedia.

Y para terminar una entrevista de radio: la que concedió a Eusko Ikaskuntza el primer especialista en [brujería vasca](#) e Inquisición, el danés Gustav Henningsen, con motivo de las jornadas en su homenaje celebradas en Iruña y Zugarramurdi.

BEATRIZ GARAI Y MIREN EGIBAR

# Mujer y deporte tradicional, estereotipos y realidad

A la hora de analizar la realidad de los deportes tradicionales o "herri kirolak", la mayor parte de los trabajos se centran en el carácter descriptivo de los mismos: origen y particularidades de las diferentes modalidades, colección de éxitos de los deportistas más destacados o conocidos. Abundan menos los estudios que se ocupan de los aspectos relacionados con la historia personal de los protagonistas, su proceso de socialización o el contexto social en el que se ubican estos deportistas, y son aun más escasos los trabajos que analizan la participación de las mujeres en estos deportes. Tomando en cuenta este punto de partida, y considerando los deportes tradicionales como objetos culturales valiosos, que siguen cumpliendo una función en la sociedad vasca actual, comenzamos a abordar el estudio de la presencia de las mujeres en un mundo considerado tradicionalmente de hombres.

Desde nuestro punto de vista entendemos que estas prácticas hay que estudiarlas al margen de visiones reduccionistas y ahistóricas, que las identifican y reducen a la manifestación de la pura exaltación de la fuerza física en el mundo rural.



Estas prácticas se han desarrollado y han ido adquiriendo una personalidad deportiva propia conviviendo al mismo tiempo con otros deportes. En este contexto intentamos analizar y profundizar sobre la presencia de la mujer en estas modalidades deportivas. Siendo conscientes que el deporte tradicional, en muchos casos, se ha convertido en el ámbito perfecto para escenificar la identidad masculina y esta hegemonía es más resistente al cambio. Es aquí donde la participación de la mujer contribuirá a mantener esa hegemonía o por el contrario traerá cambios, readaptaciones. Nuestro propósito es averiguarlo a través de las protagonistas, de las mujeres que participan durante los últimos años en estas prácticas deportivas.

En nuestro estudio, publicado en la colección Lankidetzan de Eusko Ikaskuntza, estructuramos los resultados obtenidos en torno a cuatro núcleos temáticos. El primero se centra en el perfil sociológico y las modalidades de deporte tradicional en las que participan, reducido y focalizado de manera destacada en la modalidad de sokatira. En segundo lugar, con relación al proceso de socialización deportiva que siguen estas deportistas, el agente socializador más influyente hasta ahora, la familia, está dejando paso a nuevas formas de iniciarse en estas prácticas. Así, tienen mucho peso en este proceso los primeros contactos o aproximaciones a estas prácticas en ambientes festivos populares. También, las amigas, las hermanas, los centros educativos a través del deporte escolar, son nuevos agentes socializadores para estos deportes. En tercer lugar respecto a los valores que se transmiten en estos deportes se constata que aún persisten muchas ideas preconcebidas, provocadas en muchos casos por el desconocimiento "in situ" de éstos y no haber practicado nunca estos deportes. Unido a la poca o nula presencia de las mujeres en los medios de comunicación. La mayoría de las veces testimonial favoreciendo que se mantenga dicha situación.

En último lugar con relación al futuro, la mayoría de las deportistas lo ve algo negro si no cambian algunas dinámicas. Por ejemplo, dotar de contenido al "Plan Estratégico para los Deportes Tradicionales (2006-2010)" del Gobierno Vasco, sobre todo en el punto en que se contempla la formación de técnicos deportivos en Herri Kirolak y creación de puestos de trabajo en los diferentes organismos y federaciones. Además, la mayor parte de estas deportistas, del ámbito de la competición, reconocen que es fundamental ofertar estas prácticas dentro de los programas de deporte escolar para poder trabajar el cambio de los estereotipos, más factible desde un modelo participativo que desde el competitivo. De esta manera la participación de las mujeres en los deportes tradicionales podrá dejar de ser algo exótico o minoritario y colaborar en el proceso de la normalización desde la perspectiva de género.

GARAI IBÁÑEZ DE ELEJALDE, Beatriz; EGIBAR ARTOLA, Miren: "La participación de la mujer en los deportes tradicionales de Euskal Herria: aspectos sociológicos y perspectivas de futuro". - En: *Juegos, Deportes e Investigación Folclórica. Lankidetzan bilduma*, 51. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2009. - 203-212 pp.

## Gertatu zen



Antzerkia, ikastaroak eta argitalpenak

Théâtre, tours et éditions

Teatro, cursos y ediciones

Euskarazko antzerkia sustatzeari begira, Eusko Ikaskuntzak obra gordailu bat sortu zuen 1920ko udazkenean, arte taldeak hartaz hornitu zitezten. Bestalde, antzerki testuetarako lehen "Antzerki Sariketa" iragarri zen. 2.000 pezetako sari bakarra eta banaezina izango zen ematekoa (orduko udal mediku baten urteko lansaria baino gutxiagoko diru kopurua).

Oinarrietan adierazten zen sariketaren xedea: "...euskerazko antzerkien ertimala al ditekeneraño yasotzea". Eta ildo horretatik, ondokoa jakinarazten zen: "...aratzak izan arren, ezin saritu al izango dira usteen goitasuna, adorekunen barrutzea, norberaren oarkuna, zerbait bereki ta gai, ongi azaldu ta edatua erakutsiaz".

**Méthodologie, Haute Culture et Linguistique**

Dans le cadre du cours 1920-1921, on a choisi de poursuivre les Conférences de Méthodologie et Haute Culture à Bilbao commencées l'hiver précédent. Furent également organisés des Cours de Linguistique à l'Ateneo de Madrid, à la charge de

Ramón Menéndez Pidal, et de messieurs Navarro et Castro, du Centre d'Etudes Historiques de Madrid, et de monsieur Griera, des Bureaux Lexicographiques de l'Institut d'Etudes Catalanes. Tous dissertèrent "sur les questions les plus palpitantes et d'un intérêt des plus pratiques pour la linguistique basque".

**Eusko Ikaskuntza busca imprenta**

Desde el primer libro que proyectó editar, las actas del Congreso de Oñati de 1918, el problema de las imprentas se convirtió en un constante quebradero de cabeza, como queda recogido en todos los Boletines trimestrales de Eusko Ikaskuntza. Tan es así, que en el otoño de 1920 se

intentaba poner en marcha la edición del II Congreso a cargo de la casa Editorial y Prensa de Donostia mientras aún se negociaban los últimos detalles del tomo del Congreso precedente con la empresa Bilbaína de Artes Gráficas.

A más de esto, había otros proyectos esperando como los manuscritos inéditos del historiador vizcaino Juan Ramón Iturriza, que no podían darse a la estampa por insuficiencia de imprentas en el país. En vista de lo cual, la Junta Permanente designó una comisión (Urquijo, Echegaray, Mújica y Apraiz) "que estudie las soluciones que puedan darse al problema, incluso la del establecimiento de una imprenta propia".

## Ikaskuntza zaleak



**Ines Mª Garcia Azkoaga (3.856 bazkide zk.)**  
Euskal Filologian doktorea da. Denbora luzean Osakidetzan eta

unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan beharrean aritu ondoren UPV/EHU hasten da lanean. Zenbait urtetan Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailaren eta Euskal Filologia Sailaren artean txandakatu du bere irakaskuntza-jarduera, azken sail honetako Irakasle Titular bihurtu aurretik. Ikerketa arloan, bereziki, mintzairaren alderdi diskurtsiboak eta testuinguru eleanitzetako hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzarekin lotutako alderdiak aztertzen dihardu eta zenbait artikuluren egile eta egilekide da. Une honetan Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako dekanoa da.



**Raúl López Romo (socio nº 5.655)**  
Licenciado en historia por la Universidad de Deusto y doctor en

Historia por la UPV. Su tesis trata sobre el papel de la conflictividad social en el País Vasco de la Transición democrática. Ha realizado estancias de investigación en la University of Newcastle y en el European University Institute de Florencia. Sus líneas de investigación se centran en el estudio del pasado reciente de Euskadi y de los nuevos movimientos sociales. Prepara un proyecto comparativo entre Irlanda del Norte y el País Vasco en la década de 1970, focalizado en el análisis de los discursos y prácticas sociales generadas en torno a las víctimas del terrorismo.



**Ainhoa Kaiero Claver (socia nº 5.694)**  
Doctora en Historia y Ciencias de la Música por la Universidad


Autónoma de Barcelona. Su área de especialización se centra en la estética postmoderna y su relación con la sociedad y la cultura contemporáneas. Sobre este tema ha publicado numerosos artículos y ha impartido seminarios y cursos en diferentes universidades. Es miembro del Comité editorial de *TRANS*, revista de la SIBE, así como socia de la Sección de Música de Eusko Ikaskuntza en cuyo Cuaderno *Musiker* colabora habitualmente. En estos momentos realiza un proyecto postdoctoral en la EHESS de Paris sobre las estrategias narrativas postmodernas en la obra musical y artística de Laurie Anderson.



**Pascal Pragnère (membre nº 5.967)**  
Enseignant depuis 10 ans, il prépare actuellement un double doctorat

de sciences politiques et d'histoire contemporaine dans le cadre d'une cotutelle internationale de thèse à University College, Dublin (UCD), et à l'EHESS - Paris. Ses recherches sont financées par le John Hume Institute for Global Irish Studies. Il travaille sur des processus et dynamiques des conflits ethno-nationalistes, et plus particulièrement sur les liens entre les transformations de l'identité nationale par les élites politiques et les niveaux de violence en Irlande du Nord et au Pays Basque. Il vit actuellement à Dublin, enseigne à UCD et poursuit ses recherches en Irlande du Nord et au Pays Basque.

## Argitalpenak



**Luis Arana Goiri (1862-1951). Historia del Nacionalismo Vasco**

AUTOR: JEAN-CLAUDE LARRONDE  
BILBAO: SABINO ARANA FUNDAZIOA, 2010  
534 P. ; 26 CM.  
ISBN: 978-84-88379-78-8

Con Luis Arana Goiri, cofundador del nacionalismo vasco junto con su hermano Sabino, recorremos una cincuentena de años que cubre desde los finales del siglo XIX hasta la guerra civil, pasando por todas las vicisitudes de este movimiento político a cuyo nacimiento él contribuyó. Se le atribuye a menudo un conservadurismo rígido de "guardián del templo" que, si bien fue real en ciertos momentos, no se correspondo siempre a la realidad de su acción. Objeto de exclusión, marginación, rehabilitación, dimisión y exilios voluntarios o forzosos, es un personaje ineludible para comprender el origen y el desarrollo del nacionalismo vasco.



**Osmínog**

ERAGILEA: PATXI LÓPEZ DE TEJADA FLORES  
GASTEIZ: ARABAKO FORU ALDUNDIA, 2009  
118 OR. ; IR. ; 21 CM.  
ISBN: 978-84-7821-725-0

Zuzenbidean lizentziatutako Patxi López de Tejadak 56 poesiaz osatutako liburua argitaratu du. *Osmínog*, Ernestina de Champourcin XIX. poesia sariketa irabazi ondoren. López de Tejada abokatu lanetan aritu ohi da Donostian, bere jaioterrian, baina poesiari ere eskaintzen dio tartea, hirugarren poema liburua baitu hau gipuzkoarrak. Narratiba ere jorratu du López de Tejada donostiarrak 'Eguzkia eta ilargia' eleberrirak, baita gai juridiko eta politikoak ere bestelako argitalpen batzuetan. Oraingoan, poemekin datorrigu lanbidez abokatu izan eta zuzenbide eta gizarte gaiak aztertu ohi dituen López de Tejada.



**Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Politika. Análisi orokor eta alderatua**

ERAGILEA: AITZIBER ETXEZARRETA ETXARRI  
LEIOA: EHU, 2008  
357 OR. ; 23 CM.  
ISBN: 978-84-9860-113-8

Lan monografiko honek etxebizitzaren gaia du ardatz, eta beraz, puri-purian dagoen gizarte kezka bati erantzuteko saioa da Aitziber Etxezarretak atondutako *Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Politika: analisi orokor eta alderatua*. Etxebizitza, biztanleontzat behar-beharrezko ondasuna izateaz gain, testu juridikoetan onarturiko eskubidea da. Baina, horretaz gain, etxebizitza ondasun ekonomikoa den neurrian, oso aldakorren merkatu batean kokatzen da. Gaiaren inguruko hurbilketa akademikoa izan nahi du Etxezarretak, baita erabilpen praktikoa izan dezakeen informazio zain gogoeta erabilgarriaren iturria ere. Lan honetan EAEko errealtatea aztertu da, Europako testuinguruaren baitan txertatuz.



**Bat Soziolinguistika Aldizkaria, 75 zbk.**

ERAGILEAK: PABLO SOTÉS ET AL.  
ANDOAIN: SOZIOLOGIA KLUSTRERA, 2010  
200 OR. ; 26 CM.  
ISSN: I130-8435

Bat Soziolinguistika aldizkariaren zenbaki honetan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Nafarroako Unibertsitatearen artean 2009ko irailean antolaturiko *Euskararen Presentzia eta Erabilera Unibertsitatean: Elebitasunetik Eleanitzasunera* udako ikastaroa hartu dute abiapuntu, Europako Unibertsitate Eremuari egokitzeko asmoz, komunitate elebidunetan hizkuntzek bizi duten egoera aztertzeko. Pablo Sotés, Jaione Cenoz, Battittu Goyos, Pilar Sagasta, Karnele Pérez, Begoña Pedrea, Eneeritz Garro, Jon Irazusta, Ludger Mees, Carmen Pérez-Vidal, Ioseba Barandiaran, Pilar Kaltzada, Colín H. Williams, Jose Azurmendi, Daniel Hermosilla, Juan José Arropide eta Maria Jose Azurmendiren lanak bildu dituzte.

ATEJOKA  
025

AZAROA  
NOVIEMBRE  
NOVIEMBRE  
2010



Argitaratzailea  
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia,  
Miraoncha, 48. 20007 DONOSTIA.

Argitalpen Idazkaria  
Eva Nieto

Argazkiak  
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa,  
Euskomedia Fundazioa eta Noticias de  
Gipuzkoa (José Ramón Gómez)

Harpidetzak  
Atejoka etxean jaso nahi baldin  
baduzu, idatzi edo dei eguzuz  
helbide hauetara:

Eusko Ikaskuntzako  
Bulego Nagusiak  
Miramar Jauregia, Miraoncha, 48  
20007 DONOSTIA  
Tel. 943-310855  
Fax 943-213956  
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org.

Arabako Bulegoa  
General Alava, 5-1º  
01005 GASTEIZ  
Tel. 945-231552  
Fax 945-148752  
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

Bizkaiko Bulegoa  
Pº de Uribitarte, 10, planta baja  
48009 BILBAO  
Tel. 94-4425287  
Fax 94-4414650  
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

Nafarroako Bulegoa  
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D  
31001 IRUÑEA  
Tel. 948-22105  
Fax 948-21717  
iruna@eusko-ikaskuntza.org

Orduetgia  
Astelehenetik ostegunera 8:30-14  
eta 15:30-17:30; ostirala, 8:00-15:00

Horario  
De lunes a jueves de 8.30-14 y de  
15.30-17.30; viernes de 8.00-15.00

Iparraldeko Bulegoa  
51 quai Jauréguiberry  
64100 BAIONA  
Tel. 559458290  
Fax 559451844  
baiona@eusko-ikaskuntza.org

Orduetgia  
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12 eta  
15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.  
Du lundi au jeudi: 8:30-12:00 et 15:00-18:00  
et le vendredi de 8:00-12:00.

L.G.: SS-1150-2008. ISSN: 1889-0342  
Fotokonposaketa: Ipar SL  
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga